

LAGUNTZA EMATEN
ALDAKETA BULTZATZEN
DUTEN HARREMANAK
ERAIKITZEN

MAIATZAK 17
BOLUNTAKO EKITALDI
ARETOA

Zabalbide kalea 1, Bilbo

09:30etik 14:00etara

*Laguntza ematearen kontzeptua
berrikusten sektorearen ikuspegi
komunetik abiatuta*

Jardunaldi 1
+ tailer 1
+ IKUS-ENTZUNEZKO
PRODUKTU BAT



AURKEZPENA

Laguntza ematea Hirugarren Sektorearen ardatz gisa.

Hirugarren Sektorea aipatzen dugunean, jarduera, esparru, kolektibo, proposamen, erakunde mota eta abar ugari dugu aurrean. Batzuetan, gainera, konplexua izan daiteke sektore-kontzeptu horren baitan horren anitza eta askotarikoa den errealitatea ulertzea. Dena den, aniztasun handi horren aberastasuna ulertzeaz gain, bistakoa da proiektu, ekimen eta ekarpen horiek guztiek [ezaugarri komunak](#) dituztela.

Nortasun komun horren baitan, **laguntza ematea** era askotako ekimenetan **partekatutako oinarria** da: ezintasuna duten pertsonen babesa emateko proiektuak, komunitate-izaerako ekimenak, gazteen laneratzean zentratutako prestakuntza-erakundeak, osasunarekin lotutako une kritikoetan edo bizitzaren amaieran pertsonen arreta ematen dieten gizarte eta osasun arloko baliabideak... Adibideak ugari dira, baina batzuen eta besteen artean aldeak dauden arren, laguntza ematea da

erakunde eta proiektu ugarien proposamen eraldatzailea modu leialenean deskribatzen duten osagaietako bat.

Agian, horrexegatik, Behatokitik eduki honetan arreta jarri dugu gurearen moduko topaketa-testuinguruan lan egiteko bereziki iradokitzailea izan daitekeela uste dugun proposamen gisa. [Esku-hartzearen harremanen ikuspegiaren](#) inguruko lehen lana garatu eta [hartzaileen iritzia entzun eta erakundeei zuzendutako haien begirada](#) ezagutu ostean, Laguntzaren inguruko proposamen honek **sakontze-bidea egiten jarraitzen du** gure lan egiteko moduaren ezaugarri eta oinarri den harremanen loturako oinarritzko nukleoen inguruan.

HELBURUAK

- + **Komunean dituzten elementuak eta ekarpen ugariak ezagutzea.** Erakunde gisa dugun esperientziatik, Laguntza ematearen kontzeptuaren eta praktikaren inguruan bil ditzakegu horiek.
- + **Elkartzea eta elkarrekin berriro pentsatzea gaur egun Laguntza emateak zer esan nahi duen.**
- + **Laguntza ematearen balioa hedatzea eta bistaratzea** sektoreko erakundeen praktikaren oinarritzko elementu gisa.

PROPOSAMENA

Hiru ekimen edo gunetan banatutako proposamena da.

- **Jardunaldia.**

1. Proposamenaren inguruko sarrera.
2. **Hitzaldi nagusia** [Jordi Planella](#)ren eskutik (*Zer esan nahi du laguntza emateak gaur egun? Kontzeptu/praxis hori ulertzeko modu ezberdinak. Zer bilakaera izan du gure erakundeetan laguntza ematearen ideiak eta praktikak? Zer noranzkotan goaz?*)
3. **Esperientzien mahai-ingurua.** Laguntza ematearekin lotutako 3 esperientzia zehatz eta ikuspegi ezberdinetakoak bilduko ditugu.

4. **Alderatzeko gunea eta laneko mahaiak.** (Gune horretan, labur-labur, jardunaldiko edukiak landu nahi ditugu era askotako pertsonak, begiradak, esparruak eta profilak barneratuko ditugun mahaietan).¹

- **Ikus-entzunezkoa.**

Proiektu honetan, laguntza ematen duten pertsonen eta laguntza jasotzen duten pertsonen arteko elkarrizketa jasoko dugu Laguntza ematearen prozesuaren eta esperientziaren inguruan. Laguntza ematen dutenentzat zein laguntza jasotzen duten pertsonentzat Laguntza emateak duen esanahia modu arinean eta gertukoan ezagutaraziko duen ikus-entzunezko materiala prestatuko dugu.

- **Tailerra.**

Goiz batean, aurkeztu dugun gidoiaren inguruan lan egingo dugu batez ere **praktika bera ezbaian jarrita** eta, eduki zehatzetatik harago joanda, honako hauek proposatuta: **elkarrizketa eta gogoeta sortzen lagunduko diguten esperientziak eta dinamikak**. Tailer horren bidez, modu profesionalean laguntza ematen ari zareten pertsonen gogoeta gertutik ezagutu nahi dugu Laguntza ematearen praktika eta kontzeptua gaiak oinarritzat hartuta. Irailean egingo dugu, oraindik zehaztu gabe dugun datan.

NORENTZAT

Ekimen bakoitzean banaka izena emateko aukera dagoen arren, erakunde eta pertsona ugariak **prozesu osoan parte hartzera animatzea gustatuko litzaiguke**. Hala, garatuko dugun lana eta proposatzen dizkizuegun edukiak eta topaketak aberastu ahal izango genituzke.

Proposamenak profil ezberdinei zuzenduta daude. Batez ere, esku-hartze sozialaren metodologia gisa, Laguntza ematean interesatuta dauden pertsonen eta erakundeen zuzenduta daude.

Proposamenaren diseinuarekin bat etorrira, **Sektoreko erakundeen proiektuetan parte hartzen duen hartzaillei ere parte hartzeko** eskatu nahi dizuegu. Horretarako, bi gune espezifiko antolatu ditugu (ikus-entzunezko proiektua eta alderaketako gunea eta laneko mahaiak). Horrekin lotuta, **erakundeetako arduradunei laguntza eskatu nahi dizuegu** zuen erakundeetan parte hartzen duten hartzailleekin harremanetan jartzeko eta haiek proposamenera gerturatzeko.

¹ Jardunaldiaren zati horretarako, erakundeetan parte hartzen duten hartzailen partaidetza izatea espero dugu. Horretarako, zuen laguntza behar dugu. Gure asmoa profil ezberdinak (Laguntza ematen profesionalak direnak, erakundeetan parte hartzen duten hartzailleak, ikasleak, kudeaketa mailan karguak dituzten pertsonak, beste jarduera esparru batzuetako pertsonak...) nahasi ahal izateko laneko mahietan gogoetako eta ekarpenak partekatzea da. Hori dela eta, erakundeetako arduradunei eskatu nahi dizuegu zuen erakunde eta proiektuetan parte hartzen duten hartzailleak gonbidatzeko gutxienez jardunaldiko azken proposamen horretara etor daitezen.

Parte hartu nahi duzuen erakundeei eskatu nahi dizuegu joango diren pertsonen izenak posta elektronikoko promocion@3sbizkaia.org helbidearen bidez edo 94 400 33 55 telefono-zenbakira deituta baieztatzeko (erreferentzia: Raúl Castillo Trigo)

DATAK ETA LEKUAK

Laguntza emateari buruzko jardunaldia.

- Maiatzak 17, 09:30etik 14:00etara.
- Boluntako ekitaldi-aretoa, Zabalbide kalea, 1, Bilbo.

Ikus-entzunezko proiektua

- Maiatzean eta ekainean, oraindik zehaztu gabe dagoen tokian.

Laguntza emateari buruzko tailerra.

- Irailean.